

IX
ZERGAITIK? ZERGAITIK? ZERGAITIK?
ZERGAITIK NEGAR EGIN?
MAITE GAITUAN AITA DAUKAGU GUREKIN

1

Aita geugan daukagu
bihotz barrenean,
geugaz bizi gurarik
alkartasunean.

2

Geure bihotz-erdian
geuk noiz entzungo zain
pozik hitz egin nahirik
maitasunaren gain.

3

Negarrez negarretan
ta pozetan pozik,
ez dau bakarrik izten
semeen bihotzik.

4

Gaixo ta behartsuak
minez ikustean,
Aita dogu barruan
deika ezustean.

5

Itsaso, zeru, lurak
gau ta egun dizdiz,
Aita geugan dogula
esan ta esan dabiz.

6

Jesus beso-zabalik
hilda gurutzean,
entzun ondo zer dinon
Aitak bihotzean.

7

Noiznahi otoitz egiten
sartzen banaz gelan,
Aitak berba ta berba
Berak daki zelan.

8

Aitatxo zain egon da

isil luzaroan,
lagun egin gura dau,
neugaz zahartzaroan.

9

Entzun nahi deusut, Aita,
otoitz isilean,
entzunaz jarri naiten
pozez pilpilean.

10

Bizi gaitezan, Aita,
alkaraz munduan,
gero izan gaitezan
alkaraz zeruan.

11

Zu nigan zagozala
banago hain ziur,
ez naz ezeren kezka,
ez inoren bildur.

12

Emoidazu ahalmena,
Aita Jaungoikoa,
beti Zeu nigan entzun
ta sentitzekoa.

13

Nahiz argitan ibili,
ilunetan bardin,
bakez jarraituko dot
bazagoz nirekin.

14

Eskerrik asko, Aita,
gugan zagozana,
Zeugan egon gaitezan
emon grazi bana.